

# Prentsa oharra Nota de prensa



Berdintasuna, Hezkuntza  
eta Gazteria  
Igualdad, Educación  
y Juventud



## NAZIEN KONTZENTRAZIO-ESPARRUETARA DEPORTATUTAKO DONOSTIAR BIKTIMEI OMENALDIA

- Urtarrilaren 27an hitzaldi batek kontzentrazio-esparruetako emakumeak gogoraraziko ditu

Bihar, urtarrilaren 26a, asteazkena, udalbatzak omenaldia egingo du 11: 30ean, Aieteko Jauregiko lorategietan dagoen «Urdina» eskulturarekin batera, nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako donostiar biktimen oroigarri gisa. Ane Oyarbide Eskubide Zibiletako zinegotziak adierazi duenez, “hiriaren memoria historikoa berreskuratzeko beste ekitaldi bat da, biktima horiei errekonozimendua ematea, haien historia ahanzturan ez uzteko eta herritar guztiek ezagut dezaten donostiar askok eta askok pairatu zutena”.

Iazko irailean Urdina eskultura jarri zen Aieten, 1940 eta 1945 artean nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako hogeita bi biktima donostiarrei egindako omenaldia. Obra hori 2020ko urtarrilaren 28an aho batez onartutako Adierazpen Institutuzionalaren emaitza da, askatasunen alde eta nazismoaren aurka borrokatu zirenak gogoratzeko.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

2,5 metroko garaiera duen espazio kubiko ireki bat da, hormigoi armatuz egina, bunker bat gogorarazten duena, gure oroimenak gerra gogor hartaz eta gertaera haietaz gordetzen duen sinbolo ugarietako bat. Iñigo Piñera sortzaileak nazien sarraski-eremuetara deportatu zituzten 22 donostiarren izenak sartu zituen eskulturaren barruko hormetan. Kuboaren beste aldean, leiho bertikal batek parkean landatutako Ana Franken zuhaitza ikusteko aukera ematen du, eta testu bat jarri da euskaraz eta gaztelaniaz, jatorri judua duen alemaniar gazte hori gogora ekartzeko.

Ekitaldi instituzionala urtarrilaren 27an ospatzen da, Auschwitz-Birkenauko nazien kontzentrazio- eta sarraski-esparruko tropa sobietarrek 1945ean askatu zutela ospatzeko. Hori dela eta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Holokaustoaren Biktimak Oroitzeko Nazioarteko Eguna izendatu zuen ofizialki data hori.



**Holokaustoaren Nazioarteko Eguna, urtarrilak 27**  
27 de enero Día Internacional de Conmemoración del Holocausto

**EMAKUMEAK ETA KONTZENTZAZIO ESPARRUAK**

**CAMPOS DE CONCENTRACIÓN Y MUJERES**

Aieteko Kultur Etxean, urtarrilaren 27an, 19etan.  
27 de enero, a las 19h, en la Casa de Cultura de Aiete.

Hizlariak / Ponentes:  
Etxahun Galparsoro y Ana García Santamaría.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN  
Giza Eskubideak  
Derechos Humanos

DK  
donostia kultura

Urtarrilaren 27an bertan, osteguna, Aieteko Kultur Etxean Ana García Santamaría (nazien kontzentrazio-esparruetako emakumeei buruzko historialaria eta ikertzailea) eta Etxahun Galparsoro (historialaria, Mauthausengo deportatu errepublikanoen ikertzailea eta deportatuaren iloba) izango dira, 19: 00etan.

Etxahun Galparsorok Euskadiko eta Gipuzkoako deportatuek Hirugarren Reicheko kontzentrazio-esparruetara duten harremana azalduko du eta Ana García Santamaría nazien kontzentrazio-esparruetako emakumeei buruz arituko da. Amaieran solasaldia egongo da, baina edukiera osasun-segurtasuneko neurriek baldintzatuko dute.